

Datu pertsonalen babesaren inguruko informazioa

Jarraian Nafar Idazleen Elkarte-Asociación Navarra de Escritores/as-ek datu pertsonalen babesaren inguruan trataturiko informazioa ematen da. (NIE-ANE).

Informazio hau Europar Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/679 (EB) arautegiko 13. artikuluari jarraikiz eskaintzen da, 2016ko apirilaren 27koa. Artikulu honek datuen erabilera libreari eta pertsonen datuen tratamenduari dagokio, pertsona fisikoen esparruan.

Azken berrikuste data: 2018ko ekainaren 20a

Tratamenduaren arduraduna

Nor da tratamenduaren arduraduna?

NIE-ANE-ko idazkaria, Zuzendaritza Batzordearean ikuskapenaz. Gaur egun Miguel José Izu Beloso.

Nola jarri naiteke harremanetan arduradunarekin?

NIE-ANE-ren helbide elektronikoaren bitartez jar zaitezke harremanetan:
escritoresnavarros@gmail.com

Tratamenduaren helburua

Zein helbururekin erabiltzen dira datu pertsonalak?

Datu pertsonalak, zeintzuk bazkideen aldetik emanak diren euren onarpena eskatzerakoan, NIE-ANE-ren helburuetarako erabiltzen dira soilik, euren estatutuetan bildurik dagoelarik, hau da:

1. Bazkideei informazioa helarazteko.
2. Banku-helbideratzearen bitartez kuotak biltzeko.
3. Erabakietan parte hartzeko bazkideen errolda egiteko, NIE-ANE-ren organoen bitartez edo zuzenezko kontsulta eginez.

Zenbateko iraupenez gordetzen dira datu pertsonalak?

Bazkidea NIE-ANE-ko bazkide den heinean eta urtebete gehiagoz, harekin harremanetan jartzea beharrezkoa balitz, egin ahal izateko.

Zein eskubide gauzatu dezake datuen babesari dagokionez?

NIE-ANE-k datu pertsonalei buruz bildutakoaz, bazkideak hurrengo eskubideak erabili ditzake:

Sarbidea. Eskubidea du dagozkion datu pertsonalak erabiltzen ari diren ala ez jakiteko, eta baiezkota izatekotan, aurreikusitako informazioa Datuen Babeserako Araudi Orokorreko 15. artikuluan topatu ahal izanen du informazioa:

- a) Erabilpenaren helburuak;
- b) Datu pertsonalen kategoriak;
- c) Datu hauek jaso ditzaketen hartzaile edo hartzaile kategoriak;
- d) Datu pertsonalen gordetzearen aurreikusitako epea;
- e) Arduradunaren bere datuen zuzenketa edota ezabapenaren eskubidearen existentzia. Eta bere datuen erabilpenaren mugak edota erabilpenaren ukapen eskubidearen existentzia;

- f) Kontrol autoritaren baten aurrean kexa bat aurkezteko eskubidea;
- g) Datu pertsonalak bazkidearen partetik jaso ez direnean, hauen jatorriaren inguruko edozein informazio;
- h) Automatizaturiko erabakien existentzia, profilen osaketa barne (NIE-ANE-ren kasuan ez dira existitzen).

Zuzenketa. Bere datu osatugabe edo zehaztugabeen zuzenketa eskatzeko eskubidea du.

Mugak. Eskubidea du datuen erabilera mugatzeko Datuen Babeserako Araudi Orokorreko 18. artikuluko baldintzaren bat betetzen bada:

- a) Interesatuak inpugnatu egiten du datu pertsonalen zehaztasuna, arduradunak hauen zehaztasuna egiaztatzen uzten dion epe bat duen artean.
- b) Erabilera zilegi ez denean eta interesatuak datu pertsonalen ezabapena eskatu ordez hauen erabileraren mugaketa eskatzen duelarik;
- c) Arduradunak erabileraren helburuetarako datu pertsonalak dagoeneko behar ez dituelarik baina interesatuak formulaziorako, hau da, erreklamazioak aurkezteko, behar dituelarik;
- d) Interesatuak erabilerari oposatzen zaionean, arduradunaren arrazoi legítimoak interesatuarenei gailentzen zaizkiola egiaztatu artean.

Oposaketa. Eskubidea du, edozein momentutan, bere egoera pertsonalagatik bere datu pertsonalak erabilera objektu izan daitezzen.

Ezabapena. Eskubidea du bere datu pertsonalen ezabapena eskatzeko, Datuen Babeserako Araudi Orokorrek hala esaten duelarik:

- a) Jasotako datu pertsonalak ez dira dagoeneko beharrezkoak bildu ziren momentuan betetzen zuten funtzioa betetzeko edo beste era batera erabiltzeko dira;
- b) Interesatuak erabilerarako baimena ukatzen duenean;
- c) Interesatuak erabileraren kontra egiten badu;
- d) Datu pertsonalak zilegi ez den modu baten erabiliak direlarik;
- e) Batasunaren zuzenbidean ezarritako lege betebeharrak baten arabera erdo erabilera egin duen arduradunari eraginen dion Estatukidearen legearen arabera ezabatu behar badira.

Eramangarritasuna. Eskubidea dauka erabilpenaren arduradunari modu egituratu batean eta Datuen Babeserako Araudi Orokorren jarraikirik emandako bere datu pertsonalak jasotzeko.

Aurretik emandako baimena ezeztatzea. Erabilerarako edonolako baimena emanik, aukera du hau edozein momentutan baliogabetzeko.

Bere eskubideren bat urraturik ikusten badu, norengana jo dezake?

Babes erreklamazio bat jartzeko aukera izanen du Espainiako Datuen Babeserako Agentzian, baldin eta asetzetik lortzen ez badu aurretik aipaturiko eskubideei buruzko informazioan:

<https://sedeagpd.gob.es/sede-electronicaweb/vistas/formReclamacionDerechos/reclamacionDerechos.jsf>

Hirugarrenei emanen zaizkio datuak?

Ez zaizkio datuok hirugarren bati jakinaraziko baldin eta bere baimenik ez badugu edota legedian inposaturik ez badator.